



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA  
GORREN ELKARTEA.

ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE  
TOLOSALDEA- GOIERRI.



**IX**

Tolosa, 2018ko urriaren 20an,

# Nazioarteko Zinema Zeinu Hizkuntzan.

deaffilmstolosa@gmail.com  
<https://www.gainditzentolosa.com>



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA  
GORREN ELKARTEA

ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE  
TOLOSALDEA - GOIERRI



Lagun agurgarriak:

Tolosaldea-Goierriko pertsona gorren elkarteak honako ekitaldi hau antolatzeko asmoa du:

**IX. Nazioarteko Zinemaldia Zeinu Hizkuntzan, GAINDITZEN 2018 SARIAK.**

Batetik, film laburren lehiaketa izango dugu; eta bestetik, zeinu hizkuntzaz egindako film luzeak aurkeztuko ditugu.

Proiektu honekin, batetik, hurbildu nahi ditugu joera artistiko eta teknologiko berriak pertsona gorren kolektibora, eta, bestetik, aitormen espazio bat eta aukera berriak eskaini kolektibo horri; izan ere, sarritan pertsona horiek oztopoak aurkitzen dituzte parte hartzeko kultur jarduera askotan.

"GAINDITZEN" 2018 SARIAK Gipuzkoako Tolosako TOPIC-ean izango dira 2018ko urriaren 20an.

Informazio gehiago edukitzeko, kontsultaren bat egiteko edota iradokitzeko, helbide honetara jo dezakezue: <http://www.gainditzentolosa.com>

Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, hona hemen gure helbide elektronikoa: [deaffilmstolosa@gmail.com](mailto:deaffilmstolosa@gmail.com) eta facebook deaffilmstolosa. Gomendatzen dizuegu DEAF FILMS idaztea email-eko [gaia](#) atalean.

Honekin batera bidaltzen dizkizuegu jaialdiko oinarriak zuen iragarki taulan argitaratzeko edota parte hartu nahi dutenei helarazteko.

Besterik gabe, har ezazue gure agurrik beroena. Adeitasunez

Komisio Pertsona Gorren Elkarteko  
Tolosaldea – Goierriko

“GAINDITZEN”



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA  
GORREN ELKARTEA

ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE  
TOLOSALDEA - GOIERRI



### FILM LABUR LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Film labur lehiaketako parte-hartzea guztientzat irekita dago 18 urtetik gorakoentzat. Era indibidualean eta taldean parte hartu daiteke. 18 urtetik berako parte hartzaileak guraso edo tutoreen baimena eduki behar dute.
2. Lehiaketan aurkeztutako lana, pertsona gorrek eta pertsona entzuleek eginda egon daiteke.
3. Film laburren gaiak askeak izango dira. Erreportajeak, iragarkiak, bideo klipak etab.... lehiaketatik kanpo geratuko dira eta ez dira kontuan hartuko nahiz eta aurkeztu.  
Dokumental edo film luze bat aurkeztekotan, Jaialdiaren antolaketaren arduradunei ohartuko zaie aurretik filma edo dokumentala proiektatzeko baina hura ezin izango du lehiaketan parte hartu.
4. Lehiaketan parte hartzea guztiz dohainik izango da.
5. Beste lehiaketetan parte hartutako film laburrak parte hartu dezakete “2018 GAINDITZEN SARIAK” lehiaketa honetan, aldiz, beste urteetan Gainditzen-eko film lehiaketan parte hartutako film laburrek ezingo dute parte hartu.  
Aurreko urteetan edo urte berean Euskadi edo Nafarroako jaialdi edo aurkezpenen batean hautatuak izan diren film laburrak parte hartu dezakete, baina ez dute inongo laguntza ekonomiko eta saririk izango. Gainditzen-eko batzarrak erabakiko du filmen parte hartzeak.
6. Film laburrak zeinu hizkuntzan izango dira eta formatu espezifiko batekin aurkeztuko da, hala nola:
  - MOV-a edo MP4 formatua eta 1080HD FULL- erresoluzioa
  - Gaztelaniaz azpigituluak jarrita (bertan txertatuak)
  - Film laburren iraupena: 5 minutu gutxienez eta 30 minutukoa gehienez.



**GAINDITZEN**

**TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA  
GORREN ELKARTEA**

**ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE  
TOLOSALDEA - GOIERRI**



- Gutxieneko iraupena betetzen ez duena eta gehienekoa gainditzen duten film laburrak ezingo dute lehiaketan parte hartu.
7. Inskripzioa online egingo da. Inskripzioan zenbait dokumentazio txertatu behar da, hala nola:
- Parte hartzailearen argazkia (JPG, PDF formatua MAX A4 erresoluzioarekin)
  - Film laburraren trailerra minutu bateko iraupenarekin (MOV edo Mp2 formatuarekin eta 720ko erresoluzioa gutxienez)
  - Film laburraren kartela JPG edo PDF formaturekin A3 gehienez
8. Inskripzioa hemen adierazitako orrialde baten bidez bidali beharko da:
- **Festhome.com** edo **movibeta.com**.
  - **Wetransfer** gmail-aren bidez (deaffilmstolosa@gmail.com)
  - **USB/Pendrive** postaren bidez:

Asociacion de Personas sordas de Tolosaldea – Goierri (GAINDITZEN),  
POSTA KUTXA 55 zenbakia. 20400  
Tolosa (ESPAÑA).

**Bidalitako materiala (usb/pendrive ...) ez dira itzuliko.**

9. Inskripzio data 2018ko Ekainaren 30ean amaituko da. Data amaitu ostean ez dira filmik jasoko, kopiak edo aldaketak.
10. Lehen aipatutako data epea amaitzean Gainditzen-eko batzordeak bi hilabeteen zehar film laburrak aukeratuko ditu. Aukeraketa eta erabakiak **e-mail** bidez parte hartutako parte hartzaile guztiei berri emango zaie. Horretaz gain, **GAINDITZEN-en web eta Facebook** saretan informazioa ipiniko dugu.
- Horretaz gain, kategori bakoitzeko lau izendatuak hautatuko dira e-mailaren bidez jakinaraziko zaiena.



**TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA  
GORREN ELKARTEA**

**ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE  
TOLOSALDEA - GOIERRI**



#### **11. Sariak:**

- Film labur onenari saria: 350€ , txapela eta ziurtagiria
- Zuzendari onenari saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Gidoi onenari saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Muntai onenari saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Argazki onenari saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Aktore (gizonezkoa) onenari saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Aktore (emakumezkoa) onenari saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Gazte onenari saria(\*): 100€, txapela eta ziurtagiria
- Publikoaren saria: txapela eta ziurtagiria
- Aipamen berezia: gizon eta emakume aktore, zuzendaritza, gidoilariak etab. 18 urte baino gutxiagoko gazteek ere sari honetara hautatuak izan daitezke.

\*Oharra: Zuzendari gazteko sailean 18 eta 30 urte bitarteko gazteak parte hartu dezakete. Film laburrak lehen aipaturiko ezaugarriak bete behar dituzte eta zuzendari gaztearen saileko fitxa bete beharko dute. Funtsezkoa izango da fitxa betetzea eta NAN dokumentuaren fotokopia JPG formatuan aurkeztea. 18 urte baino gutxiago izanez gero gurasoen baimena beharko du.

#### **12. Parte hartzaileen izendapenak:**

- 4 izendapen bakoitza 200€koa
- 5. izendapenetik 10.izendapenera, bakoitza 100€koa.

\* Tolosan 2018ko urriaren 20ean izango den sari banaketan, edozein kategorian hautatua izaten den pertsona aurkezten ez bada, dirutan banatzen den sariaren %30-a murriztuko zaio. Jaialdiaren antolatzaileek erabakiko dute diru kopuru hori nola kudeatu (partaide, dokumental edota film luzeen proiektioetan aurkezleentzako edo bestetarako erabiliko da).

#### **13. Film laburren proiektzioa Tolosako Topic- ean izango da 2018ko Urriaren 20an.**



**TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA  
GORREN ELKARTEA**

**ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE  
TOLOSALDEA - GOIERRI**



- 14.** Lehiaketan parte hartuko duen gonbidatutako parte hartzaileari 2018ko Urriaren 20an, egonaldia ostiraleko gaua eta igandeko gosaria eta dieta Gainditzen asoziazioak estaltzen du. Tolosara egindako desplazamendua parte hartzaile bakoitzak kudeatuko du eta berekin etortzen den laguna ere.
- 15.** Gainditzen gor elkarteak inskribatutako parte hartzaileei publizitate spot bat egin eta parte hartuko duten filmen argazkia zenbait tokietan partekatuko da, hala nola, Facebook, Youtube, blog etab. Elkarteak etorkizunean eskuratutako filmak erabili ditzake inongo irabazi asmorik gabe.
- 16.** Jaialdia amaitzean, Gainditzen elkarteko batzordea bildu eta aukeratutako bost film erabili ditzake etorkizuneko proiektioetarako Euskal autonomi erkidego barnean. Film bateko irabazi ekonomikoa edukiz gero Gainditzen eta filmaren sortzailearen artean banatuko da.
- 17.** Funtsezkoa da hemen ezartzen diren oinarrien adostasuna eta onarpena. Onartu ez ezean Jaialdian ezingo da parte hartu eta inskripzioa deuseztatuko da.



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA  
GORREN ELKARTEA

ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE  
TOLOSALDEA - GOIERRI



## GAINDITZEN

**“IX. NAZIOARTEKO ZINEMALDIA ZEINU HIZKUNTZAN  
GAINDITZEN SARIAK 2018  
INSKRIBATZEKO DATUEN ORRIA”**

<b>IZENA EDO ELKARTEAREN IZENA</b>					
<b>HELBIDEA</b>					
<b>POSTA ZENBAKIA</b>		<b>HERRIA</b>			
<b>LURRALDEA</b>		<b>TELEFONO ZENBAKIA:</b>			
<b>E-MAILA</b>					
<b>IZENBURUA</b>					
<b>FILMAREN IRAUPENA</b>		<b>FILM MOTA (GENEROA)</b>			
<b>PRODUKZIO URTEA</b>					
<b>FORMATUA <u>MOV , MP4 EDO 1080HD</u> <u>ERRESOLUZIOA</u></b>		<b>KOLOREA</b>		<b>T/B</b>	
<b>FILMAREN LABURPEN ZEHATZA</b>					



**GAINDITZEN**

**TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA  
GORREN ELKARTEA**

**ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE  
TOLOSALDEA - GOIERRI**



<b>IZEN/ABIZENAK</b>	
<b>ZUZENDARIA</b>	
<b>MUNTAIA</b>	
<b>GIDOIA</b>	
<b>ARGAZKIA</b>	
<b>AKTORE (EMAKUMEZKOA)</b>	
<b>AKTORE (GIZONEZKOA)</b>	
<b>ZUZENDARI GAZTEA</b>	

Datu-Babeseko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin ados, ni.....(izena) DNI-arekin...(zenbakia)..... edo pasaportearekin Jaun/Anderea baimentzen dut Pertsona Gorreko Tolosaldea- Goierriko Elkarteari – “GAINDITZEN-a” Tolosako (Gipuzkoa-ko) Goierri nire datuen erabilera soilik nire eskaerarekiko erlazionatutako helburuetarako parte-hartzea, sartzeko, aldatzeko eta nire datuen legerian ezartzen diren mugen arabera ezeztatzeko eskubidea ezagutuz:

Sinadura

Tolosan, 2018ko.....(hibaletea).....(eguna).

AS/G/10132/2002 Zenbakiarekiko Eusko Jaurlaritzaren erregistrorako izen ematea -  
G 20792073 CIF-a